

Xedapen Orokorrak

HERRIZAINGO SAILA

ZK-4537

358/1999 DEKRETUA, urriaren 19koa, Herrizaingo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dena.

Orain arte indarrean egon den Herrizaingo Sailaren egitura organikoa maiatzaren 14ko 108/1996 Dekretuaren bidez ezarri zen, baina dekretu hori aldatzea egokitzen da, zeren eta indarrean jarri zenetik hona lege-aldaketak egin baitira, eta Lehendakariaren urtarriaren 4ko 1/1999 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio sailak, sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen, onartu baita. Hori horrela, egitura organikoan behar bezalako egokitzapenak eta antolamendu-aldaketak egingo dira, Herrizaingo Sailak bere esku dituen Euskal Administrazio Publikoaren jardun-arloetan razionalizazio- eta eraberritze-programa ezar dadin.

Aurreko guztia aintzat harturik, maiatzaren 14ko 108/1996 Dekretua berraztertzea komenigarria dela ikusi da, hortaz, eta erreforma sakonik egin ez bada ere, zenbait aldaketa nabarmen gauzatu da; beti ere, aurreko egitura-erreformetan bezala, Saila ahalbait ondoen antolatzeko asmoz.

Egindako aldaketen artetik deskontzentrazioa azpimarratu behar da; izan ere, orain arte sailburuaren agindupeko eginkizun batzuk maila beheagoko organoetara eskualdatu dira (besteak beste, kontratazioak, zenbatekoak handiak ez direnean, eta langileak kudeatzearin inguruko beste hainbat), administrazio-lanak bizkortu nahian.

Sailburuaren zuzeneko agindupean geratzen diren zuzendaritzak hauexek dira: Sailburuaren Kabineteko Zuzendaritza (Sailaren komunikazio-politikan eta kanpo-harremanetan laguntzen duen organo gisa), Zerbitzu Zuzendaritza (Sailaren zerbitzu erkideetan arlo guztiak bateratzeko organoa), eta Lege Araubideko Zuzendaritza (Sailaren zerbitzu juridikoak koordinatzeko organoa).

Bestalde, bi Sailburuordetzek iraungo dute Sailaren bi zutabeen antzera.

Herrizaingo Sailburuordetzak orain arteko zuzendaritzak gordetzen ditu, zenbait berrikuntza egin bada ere. Lehengo Bidezaingo eta Ibilgailuen Zuzendaritza,

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

Nº-4537

DECRETO 358/1999, de 19 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Interior.

La estructura orgánica del Departamento de Interior vigente hasta ahora venía establecida en el Decreto 108/1996, de 14 de mayo. Los cambios legislativos ocurridos desde tal fecha y la aprobación del Decreto 1/1999, de 4 de enero, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, hacían aconsejable proceder a la modificación del decreto de estructura, con el fin de proceder a la adaptación requerida y al tiempo efectuar los ajustes organizativos precisos en orden a profundizar en la aplicación del programa de racionalización y modernización de las áreas de actuación de la Administración Pública Vasca que corresponden al Departamento de Interior.

Todo ello justifica una revisión del Decreto 108/1996, de 14 de mayo, que, aunque no supone una reforma en profundidad, sí introduce algunas modificaciones sustanciales para continuar con el proceso de racionalidad organizativa al que han servido también las anteriores reformas estructurales del Departamento.

Cabe destacar, entre los cambios más significativos, la desconcentración en órganos directivos inferiores de algunas de las atribuciones que hasta ahora aparecían atribuidas al Consejero de Interior (tales como las de órgano de contratación cuando la cuantía de los mismos no sea elevada y otras relacionadas con la gestión del personal) con lo que se pretende agilizar la gestión de tales asuntos.

Como Direcciones directamente dependientes del Consejero se mantienen las Direcciones del Gabinete del Consejero (como órgano que presta asistencia en la política comunicativa y relacional externa del Departamento), de Servicios (como órgano integrador de todas las áreas en los servicios comunes del Departamento) y la Dirección de Régimen Jurídico (como órgano coordinador de los servicios jurídicos departamentales).

Por otro lado, se mantienen las dos Viceconsejerías como los dos pilares fundamentales de las áreas de actuación del Departamento.

La Viceconsejería de Interior mantiene los órganos directivos que la integran, aunque se introducen algunas novedades importantes. La Dirección de Tráfico y

aurrerantzean Trafiko Zuzendaritza izango da; zeren eta urtarriaren 4ko 1/1999 Dekretuaz geroztik erakundeen ibilgailuen arloa ez baitago Herrizaingo Sailaren esku. Gainera, Zuzendaritza horren eta Ertzaintzaren trafikoko unitateen arteko erantzukizunak eta harremanak hobeto mugatzen ahalegindu da. Sailburuordetza honen gainerako zuzendaritzei dagokienez, bakoitzaren esparrua mugatu da, egokiago eta zehatzago, eginkizun berrien arabera.

Segurtasun Sailburuordetzan burutu dira aldaketarik nabarienenak: batetik, Ekintzetarako Baliabideen Zuzendaritza ezabatu egin da, eta zituen eginkizunak eta zerbitzuak Herritarren Segurtasunerako Zuzendaritzan txertatu dira; bestetik, Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoaren Zuzendaritza kendu egin da, eta haren ordeztu bi zuzendaritza berri eratu dira: Baliabide Orokorren Zuzendaritza eta Giza Baliabideen Zuzendaritza, bi horietan biltzen dira funtsean lehengo Ertzaintzaren Laguntzarako Atal Teknikoaren Zuzendaritzaren eginkizunak.

Erabaki horren arrazoia bilatuz gero, Ertzaintzaren baliabideen (pertsonalak, materialak eta ekonomikoak) kudeaketa eta administrazioa gero eta espezializatuagoa eta konplexuagoa dela ikusiko da. Baliabide Orokorren Zuzendaritzaren kasuan, Ertzaintzaren ekonomia-kudeaketak duen garrantziagatik, eta Giza Baliabideen Zuzendaritzaren kasuan, Ertzaintzaren funtzionarioen egitura gero eta finkatuagoa delako, izan ere, bere baitan funtzionarioen kidego ugaria biltzen da, berariazko estatutu-araubide bakarra duena.

Ondorioz, Herrizaingo sailburuaren proposamenez, Lehendakariak onartu ondoren, eta Jauraritza Kontseiluak 1999ko urriaren 19an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA
SAILAREN ANTOLAMENDU
OROKORRA

1. artikulua.— Herrizaingo Saila.

Urtarrilaren 4ko 1/1999 Dekretuaren 9. artikuluan xedaturikoaren arabera, honako hauek dira Herrizaingo Sailari dagozkion jardun-arlo eta egitekoak: a) Autonomia Erkidegoko herrizaintza; b) hauteskunde-administrazioa; c) babes zibila; d) Autonomia Erkidegoko errepideetako zirkulazio-zaintza; e) joko, apustu eta ikuskizunak; f) transmisio eta komunikazioak; g) herrizainen ibilgailuak; h) Sailari atxikitako erakunde autonomiadunak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta baltzu publikoak zuzentzea, lege eta erregela-

Parque Móvil pasa a denominarse Dirección de Tráfico, ya que, de conformidad con el Decreto 1/1999, de 4 de enero, el área de actuación «Parque Móvil institucional» no corresponde ya al Departamento de Interior. Además se hace un esfuerzo por delimitar mejor las responsabilidades y relaciones de esta Dirección respecto de las unidades de la Ertzaintza que tienen encomendada esta función. Respecto al resto de los órganos directivos de esta Viceconsejería, se aborda una delimitación más precisa y acorde con la evolución legal de sus atribuciones.

Es en la Viceconsejería de Seguridad donde se producen los cambios más sustantivos: por un lado, se suprime la Dirección de Recursos Operativos, cuyas funciones y servicios quedan integrados en la Dirección de Seguridad Ciudadana; por otro lado, desaparece la Dirección de la Unidad Técnica Auxiliar de Policía, creándose en su lugar dos nuevas Direcciones: la Dirección de Recursos Generales y la Dirección de Recursos Humanos, que asumen en esencia las atribuciones que anteriormente se concentraban en la citada Dirección de la Unidad Técnica Auxiliar de Policía.

Tal decisión se debe a la especialización subsiguiente a la creciente complejidad de la gestión y administración de los medios económicos y materiales y personales de la Ertzaintza, respectivamente. En el caso de la Dirección de Recursos Generales por el peso específico que soporta actualmente la gestión económica de la Ertzaintza y la progresiva tecnificación del trabajo policial, y en el caso de la Dirección de Recursos Humanos, atendiendo al desarrollo normativo y el asentamiento progresivo de la estructura funcional de la Ertzaintza, que la convierten en un amplio colectivo funcional sujeto a un régimen estatutario peculiar y único.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, previa aprobación del Lehendakari y deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión del día 19 de octubre de 1999,

DISPONGO:

CAPÍTULO I
DE LA ORGANIZACIÓN GENERAL DEL
DEPARTAMENTO

Artículo 1.— El Departamento de Interior.

De acuerdo con lo dispuesto en el art. 9 del Decreto 1/1999, de 4 de enero, el Departamento de Interior es el órgano del Gobierno Vasco al que corresponden como áreas de actuación propias las de: a) Policía de la Comunidad Autónoma; b) Administración electoral; c) Protección civil; d) Policía de tráfico rodado por las vías de comunicación de la Comunidad Autónoma; e) Juego, apuestas y espectáculos; f) Transmisiones y comunicaciones; g) Parque móvil policial; h) Dirigir, de acuerdo con las Leyes y los reglamentos, los organismos

menduen arabera; i) legeek eta erregelamenduek eman diezaizkioten gaintzeko ahalmenak.

2. artikulua.— Sailaren organoak.

1.— Aurreko artikuluan aipatutako arloen inguruko eskumenez baliatzeko, honako organo hauetan sailkatzen da Herrizaingo Saila:

A.— Organo nagusiak:

1.— Sailburua.

1.1.— Sailburuaren Kabineteko Zuzendaritza.

1.2.— Zerbitzu Zuzendaritza.

1.3.— Lege Araubideko Zuzendaritza.

2.— Herrizaingo Sailburuordetza.

2.1.— Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza.

2.2.— Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.

2.3.— Trafiko Zuzendaritza.

2.4.— Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritza

3.— Segurtasun Sailburuordetza.

3.1.— Segurtasun Sailburuordearen Kabinetea.

3.2.— Herritarren Segurtasunerako Zuzendaritza.

3.3.— Krimen Gaietarako Ertzaintzaren Zuzendaritza.

3.4.— Baliabide Orokorren Zuzendaritza.

3.5.— Giza Baliabideen Zuzendaritza.

B.— Lurraldeetako organoak.

Trafikoko eta Joko eta Ikuskizunetako lurralde-bulegoak izango dira lurraldeetako organoak. Horietako bakoitzean funtzionario arduradun bat egongo da, beti ere zuzendariaren menpe. Lurralde-zerbitzu horien eginkizunak Zuzendaritza bakoitza arautzeko orduan finkatzen direnak izango dira.

C.— Kide anitzeko organoak: Hurrengo organo hauek atxiki zaizkio Herrizaingo Sailari:

Ertzaintza Kontseilua.

Segurtasunerako Euskal Batzordea.

Bideo-zaintza eta Askatasunen Batzordea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Udaltzaingoko Koordinatzeko Batzordea.

Toki-mailako Koordinazio Batzordeak.

«Indarkeriak Kaltetutakoentzako Laguntza Egitaraua»ren Batzorde Tekniko Ebaluatzailea.

Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Batzordea.

Jokoaren Euskal Kontseilua.

Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jardueretarako Euskal Kontseilua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Bide Segurtasun Batzordea.

2.— Dekretu honetan ezarritako organoak baino maila beheragokoak ere ezarri ahal izango ditu sailburuak agindu bidez, Dekretu hau garatzeko asmoz.

autónomos, entes públicos de derecho privado y sociedades públicas adscritos al Departamento; i) Las demás facultades que le atribuyan las Leyes y los reglamentos.

Artículo 2.— Órganos del Departamento.

1.— Para el ejercicio de las competencias correspondientes a las materias referidas en el artículo anterior, el Departamento de Interior se estructura en los siguientes órganos:

A.— Órganos Centrales:

1.— El Consejero.

1.1.— La Dirección de Gabinete del Consejero.

1.2.— La Dirección de Servicios.

1.3.— La Dirección de Régimen Jurídico.

2.— La Viceconsejería de Interior.

2.1.— La Dirección de Atención de Emergencias.

2.2.— La Dirección de Juego y Espectáculos.

2.3.— La Dirección de Tráfico.

2.4.— La Dirección de Procesos Electorales y Documentación.

3.— La Viceconsejería de Seguridad.

3.1.— El Gabinete del Viceconsejero de Seguridad.

3.2.— La Dirección de Seguridad Ciudadana.

3.3.— La Dirección de Policía de lo Criminal.

3.4.— La Dirección de Recursos Generales.

3.5.— La Dirección de Recursos Humanos.

B.— Órganos Periféricos:

Las oficinas territoriales de tráfico y juego y espectáculos, a cuyo frente existirá un funcionario responsable de cada uno de los mismos, que dependerán de los titulares de las Direcciones correspondientes. El ámbito funcional de dichas oficinas territoriales será el establecido al regular las Direcciones de que se trata.

C.— Organos Colegiados: Están adscritos y/o vinculados al Departamento de Interior los siguientes órganos:

Consejo de la Ertzaintza.

Comisión Vasca para la Seguridad.

Comisión de Videovigilancia y Libertades.

Comisión de coordinación de las Policías Locales del País Vasco.

Comisiones de coordinación de ámbito local.

Comisión Técnica Evaluadora del «Programa de Ayudas a las Víctimas del Terrorismo».

Comisión de Protección Civil de Euskadi.

Consejo Vasco del Juego.

Consejo Vasco de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas.

Comisión de Seguridad Vial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.— Mediante Orden del Consejero dictada en desarrollo del presente Decreto, podrán establecerse unidades administrativas inferiores a las reguladas en este Decreto.

3. artikulua.— Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia.

Euskal Herriko Poliziaren Ikastegia erakunde autonomiaduna Herrizaingo Sailari atxikita dago, eta Segur-tasun Sailburuordetzak zuzentzen du, eta jardunari bu-ruzko jarraibideak ematen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 6.1 eta 7.3 artikuluekin bat eginik.

II. KAPITULUA

SAILBURUA ETA BERE MENPE DAUDEN BESTE GOI-KARGUDUNAK

4. artikulua.— Herrizaingo sailburua.

1.— Herrizaingo Saileko sailburuari dagokio, ekai-naren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluetan oharmandako eskumenez eta ahalmenez baliatzea, eta baita Sailaren berezko jardun-arlo eta eginkizunen ere-muan indarrean dagoen legeriak aitortzen dizkionak ere, urtarrilaren 4ko 1/1999 Dekretua aintzat harturik.

2.— Herrizaingo sailburuari dagozkio, gainera, Sai-leko kontratazio-organoaren eginkizunak eta ondarea-ri buruzko gaietan legeek kontratazio-organoei izenda-tzen dizkienak ere, non eta ez zaizkien eginkizun ho-riek beste organo batzuei atxikitzen dekretu honen bi-dez.

Era berean, izaera erkidea eta Herrizaingo Sailean eta bere erakunde autonomiadunean erabilera orokorra du-telakoan, Herrizaingo sailburuaren aginduz kontrata-zio zentralizatukotzat jotakoak Herrizaingo sailburuak kontratatuko ditu zuzenean.

3.— Herrizaingo sailburuaren esku daude Saileko Ad-ministrazio Orokorreko funtzionarioen lanpostuen ze-rrendak onartzea, baita Seguritasun Administrazio-ko zerbitzu laguntzaileetako langileenak, eta Ertzaintza-ko funtzionarioen lanpostuenak ere.

Sailburuari dagokio, halaber, Seguritasun Adminis-trazioko zerbitzu laguntzaileetako hautaketa-probak gainditu dituzten lan-kontratuko langile finkoak kon-tratatzea, Saileko Administrazio Orokorreko funtziona-rioen artetik izendapen libreko postuak betetzea, Segur-tasun Administrazio-ko zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratuko langileak izendatzea —jendaurreko deial-dia egin ondoren—, eta behin-behineko langileak izen-datzea.

4.— Herrizaingo sailburuaren eskumena da Saileko ordezkariak izendatzea, Ertzaintzako funtzionarioen eta Seguritasun Administrazio-ko zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratuko langileen ordezkarietako negoziatioetan aritzeko.

Artículo 3.— Academia de Policía del País Vasco.

El Organismo Autónomo Academia de Policía del País Vasco está adscrito al Departamento de Interior, siendo la Viceconsejería de Seguridad quien ejerce la facultad de tutela de dicho organismo y la determinación de las directrices generales de su funcionamiento, de conformidad con lo dispuesto con los artículos 6.1. y 7.3. de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco.

CAPÍTULO II

DEL CONSEJERO Y OTROS ALTOS CARGOS DEPENDIENTES DEL MISMO

Artículo 4.— Consejero de Interior.

1.— Corresponden al Consejero de Interior el ejerci-cio de las competencias y facultades establecidas en los artículos 26 y 28 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y cuantas le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación que corresponden al Departamento en virtud del Decreto 1/1999, de 4 de enero.

2.— Corresponderá también al Consejero el ejercicio de las funciones del órgano de contratación del Depar-tamento y las atribuidas por el Ordenamiento Jurídico en materia de patrimonio a los órganos que ostenten aquella condición, cuando no estén ambas atribuidas a otros órganos en el presente Decreto.

Así mismo el Consejero de Interior será el órgano de contratación respecto de aquellos bienes y servicios que, atendiendo a su naturaleza común y uso generalizado por el Departamento de Interior y su organismo autó-nomo, sean declarados de contratación centralizada por Orden del Consejero de Interior.

3.— Compete al Consejero de Interior la aprobación de las relaciones de puestos de trabajo del personal fun-cionario de Administración General del Departamen-to, así como la del personal de los servicios auxiliares de la Administración de Seguridad y la de los funcio-narios de la Ertzaintza.

Igualmente le corresponde contratar a quienes hu-bieren superado las pruebas selectivas convocadas para el acceso a la condición de laboral fijo de los servicios auxiliares de la Administración de Seguridad, así como la provisión de los puestos de libre designación del per-sonal funcionario de Administración General del De-partamento y del personal laboral de los servicios auxi-liares de la Administración de Seguridad, previa con-ocatoria pública de los mismos, así como la designa-ción del personal eventual.

4.— Es competencia del Consejero de Interior desig-nar la representación del Departamento en la negocia-ción con los representantes de los funcionarios de la Er-tzaintza y del personal laboral de los servicios auxilia-res de la Administración de Seguridad.

5.– Herrizaingo Sailak segurtasun-ekintzetarako egiten dituen informazio-teknologiaren planak eta programak onartzea sailburuari dagokio.

6.– Zigortzeko ahalmena erabiliz, sailburuari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Legearen 96.1.a) artikulua zigorak ezartzea, baita hamazazpigarren xedapen gehigarriaren 2.b) puntuan jasotakoak eta xedapen horretan dakarren zigor-proposamena egitea ere. Bere eskumena ere bada beste zigor hauek ezartzea: Jokoaren Legearen 32.3 artikuluan jasotakoak, Ikuskizun eta Jolas Jardueren Legearen 38.3.d) artikulua eta indarrean dauden legeetan beren beregi aitortzen zaizkionak.

7.– Herrizaingo sailburuari dagokio ondare-erantzukizuneko prozedurak ebaztea, Segurtasun sailburuordeari Dekretu honen 13.2.f) artikulua bigarren paragrafoan aitorturiko ahalmenaren kaltetan joan gabe.

5. *artikula*.– Sailburuaren Kabineteko Zuzendaritza.

1.– Kabineteko zuzendariak lagunduko dio sailburuari bere eginkizunetan eta aholkularitza-lana ere egingo du. Hona hemen Kabineteak bere gain hartuko dituen eginkizunak:

a) Sailburuaren lan-egitaraua jarraitzea.

b) Sailaren politika garatzeko interesgarri izan daitezen sailburuak agindutako azterketa eta azterlanak egitea.

c) Sailaren eginbeharrekoetan eragina izan dezaten gaien inguruko informazio egokia bildu, aztertu eta aurkeztea. Horretarako gaiarekin zerikusia duten Saileko beste organo eskudunekin batera lan egingo du.

d) Saileko estatistiken elaborazioa koordinatzea eta arlo honekin zerikusia duen organo eskudunetan Sailaren ordezkari agertzea.

e) Giza-komunikabideekiko harremanak garatu eta izan eta Sailaren komunikazio politika taiutu eta aurrera eramatea, saileko gainontzeko organoei laguntzeko.

f) Eragindako gainontzeko organoekin elkar lanean, irudi kanpainak eta herritarren lankidetzak eskatzeko helburua duten kanpainak diseinatu eta gauzatzea, Sailaren eginkizunarekin zerikusia duten gaietan herritarren parte hartzea bultzatzeko.

g) Herrizaingo Sailak egin dituzan ekintza ofizialen antolaketa era egokian garatu daitezen bermatuko du, Lehendakartzaren Idazkaritzako Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Zuzendaritza Nagusiari dagozkion kaltetan gabe.

5.– Compete al Consejero de Interior la aprobación de los planes y programas de tecnologías de la información y de telecomunicaciones destinados a actividades de seguridad elaborados por el Departamento de Interior.

6.– En ejercicio de la potestad sancionadora compete al Consejero titular del Departamento la imposición de las sanciones previstas en el art. 96.1.a) y en el punto 2.b) de la disposición adicional decimoséptima de la Ley de Policía del País Vasco, así como la propuesta de sanción prevista en ésta última disposición. También le corresponde la imposición de las sanciones determinadas en el art. 32.3 de la Ley de Juego, en el artículo 38.3 d) de la Ley de Espectáculos y Actividades Recreativas y demás que le sean expresamente atribuidas por la legislación vigente.

7.– Le corresponde al Consejero de Interior resolver los procedimientos de responsabilidad patrimonial, sin perjuicio de la atribución conferida al Viceconsejero de Seguridad en el artículo 13.2.f) segundo párrafo de este Decreto.

Artículo 5.– Dirección de Gabinete del Consejero.

1.– Para el ejercicio de sus funciones, el Consejero contará con la asistencia y asesoramiento de la Dirección de Gabinete, que desarrollará las siguientes funciones:

a) El seguimiento del programa de trabajo del Consejero.

b) Elaborar los estudios y análisis de interés para el desarrollo de la política del Departamento, que le sean requeridos por el Consejero.

c) Recopilar, analizar y trasladar la información pertinente sobre los asuntos que tengan incidencia en el quehacer departamental, requiriendo para ello la colaboración de otros Organos del Departamento competentes por razón de la materia.

d) Coordinar la elaboración de las estadísticas departamentales y representar al Departamento en los órganos colegiados competentes en esta materia.

e) Desarrollar y atender las relaciones con los medios de comunicación social, así como diseñar y ejecutar la política de comunicación del Departamento, actuando como órgano de apoyo al resto de órganos del Departamento.

f) Diseñar y ejecutar las campañas o medidas de sensibilización social, destinadas a promover la colaboración ciudadana en materias relacionadas con el quehacer departamental, en coordinación con los demás órganos interesados.

g) Organizar los actos oficiales que celebre el Departamento, sin perjuicio de los que pudieran corresponder a la Dirección de Relaciones Sociales e Institucionales de la Secretaría de la Presidencia.

h) Sailak eratutako Kongresu, Jardunaldi edo Solasaldien antolakuntza koordinatzea

i) Sailaren urteko Argitalpen-Plana prestatzea Argitalpenetako Zerbitzu Zentralarekin batera.

j) Saila eta Eusko Legebiltzarraren eta Arartekoaren arteko harremanak bideratzea Jaurlaritzako Lehendakariaren bitartez, berori baita organo eskuduna.

k) Herritarrei informazio orokorra eskaintzeko jarduerak koordinatzea.

2.- Ertzaintzaren Prentsa Zerbitzua Sailburuaren Kabinetean txertatzen da ondorio guztietarako, bat izan ezik: zerbitzua osatzen duten Ertzaintzako kideen funtzionario-estatutuarekin loturiko gaiak.

6. artikulua.- Zerbitzu Zuzendaritza.

1.- Zerbitzu Zuzendaritzatik laguntza eskainiko da Sailaren zerbitzu erkideak zuzendu eta kudeatzeko, sailburuaren zuzeneko agindupean. Hona hemen eginkizunak:

a) Sailaren aurrekontu-aurreproiektuaren elaborazioa zuzentzea eta horren jarraipena egitea. Era berean, Euskal Herriko Poliziaren ikastegiaren aurrekontu-proiektuaren elaborazioa koordinatzea, eta Sailarenarekin bat egitea; behar diren aurrekontu-aldaketak izapidetzea; eta gastu-programen ebaluazioa egitea.

b) Sailaren ekonomia-kudeaketa eramatea, Baliabide Orokorraren Zuzendaritzari berariaz dagokiona izan ezik.

c) Sailaren ekonomia-kudeaketa, kontratazio eta ondarearen jarraipena antolatu eta koordinatzea; informazio-, etengabeko ebaluazio- eta jarraipen-sistemak ezarri eta mantenduz.

d) Sailaren kontratazio-organoa izatea, beti ere kontratuaren hasierako aurrekontua 50.000.000 PTAKoa (300.506'05 euro) baino handiagoa ez bada, arau honetan Baliabide Orokorraren Zuzendaritzari berariaz atxikitzen zaizkion kasuak izan ezik.

Ogasun eta Herri Administrazio eta Herrizaingo sailburuen 1996ko uztailaren 12ko Aginduz eratu zen Kontratazio Mahaia Zerbitzu Zuzendaritzari atxikitzen zaio.

Zerbitzu Zuzendaritzari dagokio Kontratazio Mahaia aztertu behar dituen administrazio-kontratazio-ko espedienteak prestatzea, baita Sailaren ardurapeko ondare-espedienteak ere, arau honetan Baliabide Orokorraren Zuzendaritzari berariaz atxikitzen zaizkion kasuak izan ezik. Era berean, beste sail batzuetako orga-

h) Coordinar la organización de Congresos, Jornadas o Seminarios promovidos por el Departamento.

i) La elaboración del Programa Anual de Publicaciones del Departamento en colaboración con el Servicio Central de Publicaciones.

j) Canalizar las relaciones del Departamento con el Parlamento Vasco y con el Ararteko a través del órgano competente de la Vicepresidencia de Gobierno.

k) La coordinación de las funciones de información general al ciudadano.

2.- Se integra en el Gabinete del Consejero el Servicio de Prensa de la Ertzaintza, que queda asignado a esta Dirección a todos los efectos, con excepción de los asuntos relacionados con el estatuto funcional de los miembros de la Ertzaintza que lo integren.

Artículo 6.- Dirección de Servicios.

1.- La Dirección de Servicios concentra la responsabilidad de apoyo a la dirección y gestión de los servicios comunes del Departamento y, en su virtud, ejerce, bajo la directa dependencia del Consejero, las siguientes funciones:

a) Dirigir la elaboración del Anteproyecto de Presupuesto del Departamento y ejercer el seguimiento del mismo; Igualmente coordinar la elaboración del proyecto de Presupuesto de la Academia de Policía del País Vasco y su consolidación con el del Departamento; la tramitación de las modificaciones presupuestarias pertinentes y la evaluación de los programas de gasto.

b) La gestión económica del Departamento, a excepción de aquélla que corresponda expresamente a la Dirección de Recursos Generales.

c) Organizar y coordinar el seguimiento de la gestión económica, contratación y patrimonio del Departamento, estableciendo y manteniendo los correspondientes sistemas de información, evaluación continua y seguimiento.

d) Ser el órgano de contratación del Departamento en relación con aquellos contratos cuyo presupuesto inicial no supere los 50.000.000 de pesetas (300.506,05 euros), a excepción de los supuestos atribuidos expresamente a la Dirección de Recursos Generales en esta norma.

Se adscribe a la Dirección de Servicios la Mesa de Contratación creada por Orden de 12 de julio de 1996, de los Consejeros de Hacienda y Administración Pública y de Interior, de creación de la Mesa de Contratación del Departamento de Interior.

Corresponderá a la Dirección de Servicios la preparación de los expedientes de contratación administrativa que deban ser examinados por dicha Mesa de Contratación, así como los de patrimonio que estén atribuidos al Departamento, a excepción de los supuestos atribuidos expresamente a la Dirección de Recursos Gene-

noen ardurapeko espedienteak bultzatzea ere eginkizun dauka.

e) 50.000.000 PTatik (300.506'05 euro) beherako Sailaren gastuak baimentzea, arau honetan Baliabide Orokorren Zuzendaritzari berariaz atxikitzen zaizkion kasuak izan ezik.

f) Saileko giza bitartekoak zuzendu eta administratzea, beti ere Sailak dituen eskumenen barruan, eta Segurtasun Sailburuordetzako giza baliabideak izan ezik. Batez ere, honako hauek:

1.- Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 10.1 artikulua araberako Sailaren esku utzitako eskumenak betetzea. Beraz, burutza, Sailaren inguruko administrazio-egintzak eta ohiko kudeaketa gauzatzea, eta indarrean den arautegiak esleitzen dion beste edozein eginkizun.

2.- Langile-beharrizanak ebaluatzea, plantillak osatzeko proposamenak egitea, eta lanpostu-zerrendak prestatzea.

3.- Langileen arloan jartzen diren errekursoak ebazteko izapideak eta proposamenak egitea, funtzio publikoaren ardura duten organoen eskumenen kaltetan joan gabe.

4.- Langileentzako prestakuntza- eta hobekuntza-planak eta programak bultzatu eta prestatzea, IVAP-HAEEn eskumenen kaltetan joan gabe.

5.- Sailen arteko koordinazioa, langileak euskalduntzeko politika eta hizkuntza-normalkuntza garatzeko orduan.

g) Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako langileei dagokienez beheragoko eginkizunak dauzka, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 5. artikuluekin bat, eta euskal funtzio publikoaren printzipio orokorrak kontuan harturik:

1.- Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako langileen lanpostu-zerrendak prestatzea.

2.- Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako behin-behineko lan-kontratuko langileen lan-poltsak osatu eta kudeatzea. Langile horiek kontratatzea, non eta ez den Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiaren eskumena.

3.- Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileetako lan-kontratuko langile finkoa izateko hautapen-proben oinarriak, programak eta edukia prestatzea. Epaimahaiak izendatzea, eta hautapen-prozesua antolatu eta kudeatzea.

4.- Segurtasun Administrazioako zerbitzu laguntzaileak langileez hornitzeko prozeduren oinarriak presta-

rales en esta norma. Igualmente le corresponde impulsar la tramitación de aquellos otros que sean de competencia de órganos de otros Departamentos.

e) Autorizar los gastos del Departamento que no superen los 50.000.000 de pesetas (300.506,05 euros), con excepción de los supuestos atribuidos expresamente a la Dirección de Recursos Generales en esta norma.

f) La dirección y administración de los recursos humanos del Departamento, en el ámbito de las competencias propias del mismo, excepción hecha de los dependientes de la Viceconsejería de Seguridad. En particular:

1.- Ejercer las competencias que atribuye al Departamento el art. 10.1 de la Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca, correspondiéndole la jefatura y los actos de administración y gestión ordinaria relativos al mismo, así como cuantas otras funciones le atribuya la normativa vigente.

2.- Evaluar las previsiones de necesidades de personal, realizar las propuestas para la elaboración de las plantillas y elaborar las relaciones de puestos de trabajo.

3.- Tramitar y proponer las resoluciones que procedan sobre los recursos que en materia de personal se interpongan, todo ello sin perjuicio de las atribuciones que correspondan a los órganos competentes en materia de función pública.

4.- Promover y preparar planes y programas de formación y perfeccionamiento del personal, sin perjuicio de las competencias del IVAP.

5.- Coordinación departamental en el desarrollo de la política de euskaldunización y normalización lingüística del personal.

g) En relación con el personal de los servicios auxiliares de la Administración de Seguridad le corresponde, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 5 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco y los principios generales aplicables al conjunto de la función pública del País Vasco:

1.- Elaborar las relaciones de puestos de trabajo del personal de los servicios auxiliares de la Administración de la Seguridad.

2.- Configurar y gestionar las bolsas de trabajo del personal laboral temporal de los servicios auxiliares de la Administración de la Seguridad. Igualmente contratarlo, salvo cuando corresponda a la Academia de Policía del País Vasco.

3.- Elaborar las bases, programas y contenido de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de personal laboral fijo de los servicios auxiliares de la Administración de Seguridad, la designación de los tribunales calificadores de las mismas, y la organización y gestión del proceso selectivo.

4.- Elaborar las bases de los procedimientos de provisión de puestos del personal de los servicios auxilia-

tu, deialdiak egin, prozedura bideratu eta ebatzea. Lan-kontratuko langile horiek jardunean hasteko, lekuz aldatzeko, edo dituzten lan-baldintzak aldatzeko izapideak egitea eta baimena ematea.

h) Ertzaintzako funtzionarioen zein Segurtasun Administrazioa zerbitzu laguntzaileetako langileen hitzarmenak eta itunak negoziatzean parte hartzea. Segurtasun Administrazioa zerbitzu laguntzaileetako dagokienez, negoziatzia zuzentzeko ardura eramatea, artikulua honen lehenengo idatz-zatiaren g) letran jasotako gaietan.

i) Herrizaingo Sailari dagokion administrazio-kudeaketa antolatu, zuzendu, bultzatu eta koordinatzea, Ertzaintza eta bere zerbitzu laguntzaileak salbu, hurrengo arlo hauetan: barne-araubidea, azpiegitura eta bulegoetako baliabide materialez hornitzea, eta mantentzea.

j) Erregistro eta artxiboko sistema antolatzea. Sailaren argitalpenak koordinatzea Eusko Jaurlaritzako beste sailekin. Sailaren bibliografia-baliabideak Eusko Jaurlaritzako zerbitzu nagusietakoekin batera antolatzea, Herrizaingo Saileko beste organo batzuek dituzten eskumenen kaltetan joan gabe.

k) Sailaren barne-antolamenduak eta lan egiteko moduez proposamenak egitea, Segurtasun Sailburuordetza izan ezik, Herrizaingo Sailaren zerbitzu-eta lan-sistemak razionalizatu eta hobetzeko, eta aipaturiko zerbitzuak eta polizia-erakundeak koordinatzeko.

Halaber, Herrizaingo Sailari dagokion eginkizunak, informazio eta telekomunikazio-sistemen arloan, Zerbitzu zuzendariari atxikitzen zaizkio, Informazio eta Telekomunikazio-sistemen Kudeaketa-moten eta Egin-kizunen Plangintza, Antolamendua eta Banaketa arautzen duen 35/1997 Dekretuaren 6. artikulua betez, salbuespena eginda segurtasun-jardueretarako diren informazio eta komunikazio-sistemei dagokienez, hori ezartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen hamalaugarren xedapen Gehigarrian.

l) Hurrengo proiektu eta aurreproiektuen espedienteak izapidetzea: xedapen orokorrenak, administrazio-hitzarmenenak, eta diru-laguntzak banatzeko sailburuaren aginduenak. Arau-proiektuen testuak idaztea, baldin eta Zerbitzu Zuzendaritzaren eskumeneko gaiei buruzkoak badira, edo berariaz arduratzen zaionean.

m) Ekonomia-edukia duten arau-xedapenen, administrazio-hitzarmenen, eta diru-laguntzak arautzen dituzten sailburuaren aginduen aurreproiektu eta proiektuak, fiskalizazio-organotara bidali baino lehen, duten

res de la Administración de Seguridad, convocarlos, gestionar su desarrollo y resolverlos. Tramitar y, en su caso, autorizar la asignación al desempeño de funciones y otros supuestos de movilidad o modificación de las condiciones de trabajo de dicho personal laboral conforme venga previsto en las disposiciones aplicables.

h) Participar en la negociación de los Acuerdos y Pactos del personal funcionario de la Ertzaintza y del personal de los servicios auxiliares de la Administración de Seguridad. Respecto a este último personal le corresponde liderar la negociación en aquellas materias incluidas dentro de la letra g) del primer apartado de este artículo.

i) Organizar, dirigir, impulsar y coordinar la gestión administrativa que corresponda al Departamento de Interior, salvo en relación con la Ertzaintza y sus servicios auxiliares, en las siguientes áreas de actuación: régimen interior; infraestructura y dotación de medios materiales de las dependencias y su conservación.

j) Organizar el Sistema de Registro y Archivo. La actividad editora del Departamento en coordinación con otros órganos del Gobierno Vasco. Organizar los medios bibliográficos del Departamento en coordinación con los de los servicios centrales del Gobierno Vasco y sin perjuicio de las competencias que tengan atribuidas otros órganos del Departamento de Interior.

k) Elaborar propuestas sobre la organización interna de los servicios del Departamento y de los sistemas y métodos de trabajo en el mismo, excepción hecha de los de la Viceconsejería de Seguridad, en orden a la racionalización y mejora de los sistemas de trabajo de los servicios del Departamento de Interior, y coordinar la relación de los mismos con los dependientes de los servicios policiales.

Igualmente le corresponden las funciones que en materia de sistemas de información y telecomunicaciones corresponden al Departamento de Interior en virtud del artículo 6 del Decreto 35/1997, por el que se regula la planificación, organización, distribución de funciones y modalidades de gestión en materia de sistemas de información y telecomunicaciones, con excepción de lo referente a los sistemas de información y comunicaciones destinados a actividades de seguridad a que se refiere la Disposición Adicional Decimocuarta de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco.

l) Tramitar los expedientes de los proyectos y anteproyectos de disposiciones generales, de los convenios administrativos y de las Ordenes del Consejero reguladoras de ayudas y subvenciones. Igualmente redactar los textos de los proyectos de normas cuando se trate de materias de la competencia de la Dirección de Servicios o cuando así le sea expresamente encomendado.

m) Examinar y supervisar, con carácter previo a su remisión a los órganos de fiscalización, la incidencia jurídico-presupuestaria y económica de los anteproyectos y proyectos de disposiciones normativas con contenido

eragina –lege, aurrekontu eta ekonomiaren aldetik– aztertutako eta gainbegiratzeko. Era berean, Zuzendaritza honen esku utzi diren eta derrigorrez txosten juridikoa behar duten administrazio-kontratazio gaiei buruzko irizpenak ematea.

n) Sailean ebatzi beharreko gaiei buruzko azterlanak eta txostenak egitea, egiteko hori beste edozein zerbitzu edo organoari atxiki ez zaionean.

o) Jaurlaritza Kontseilura eta bere eskuordeturiako batzordeetara bidali beharreko Sailaren gaiak izapidetzea, baita Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo beste edozein egunkari ofizialetan argitaratu beharreko xedapenak eta administrazio-egintzak ere.

p) Jaurlaritza Kontseiluaren eta bere eskuordeturiako batzordeen aztergaiak aztertzea; komunikazio-organismo gisara jardutea gainerako sailekin, eta harremanetan dauden organo edo erakundeekin; eta Zuzendaritza honen ardurapeko eginkizunak helburu duten sailen arteko batzorde eta kontseiluetan parte hartzea.

q) Euskadiko Ogasun Orokor, antolamendu eta informatikaren inguruan sail guztiei orokorrean esleitzen zaizkion gaietatik Herrizaingo Sailari dagozkionak, indarreko legeen arabera.

2.– Administrazioa eraberritzeko organoak ematen dituen jarraibideak eta proposatzen dituen ekimenak garatzeko eta gauzatzeko behar den euskarria eskaintzea Zerbitzu Zuzendaritzak izango du eginkizun, Jaurlaritzaren programan dauden aurreikuspenak Sailaren esparruan garatzeko asmotan.

3.– Europako Batasunaren araubidea eta politikak prestatzen eta aplikatzen Eusko Jaurlaritzak duen parte hartzearen barruan Zerbitzu Zuzendaritza izango da Sailari dagokionaren arduraduna, indarrean dauden hitzarmenak eta arauak aintzat harturik.

7. artikulua.– Lege Araubideko Zuzendaritza.

1.– Sailburuaren zuzeneko ardurapean, Herrizaingo Sailari egokitutako kudeaketa arloan Lege Araubideko Zuzendaritza da lege-araubideari buruzko jarduketetarako koordinazio-organismo. Horrela, Lege Araubideko zuzendariak, egiturako bere goi-ageraren bidez koordinatuko ditu Saileko organo ezberdinei atxikitako lege-zerbitzuak.

2.– Honako eginkizun hauek dagozkio Lege Araubideko Zuzendaritzari:

a) Herrizaingo Sailaren eskumen peko alorreko dagoen, legeak gartzeko planak prestatu, proposatu eta burutzea, kasuan kasuko xedapen orokorren egitasmoak

económico, los convenios administrativos y las Ordenes del Consejo reguladoras de ayudas o subvenciones; así como informar los asuntos relacionados con la contratación administrativa atribuida a esta Dirección que requieran de informe jurídico preceptivo.

n) Realizar estudios y elaborar informes en los asuntos que se susciten en el Departamento cuando no estén atribuidos a otros servicios u órganos.

o) Tramitar la remisión de los asuntos del Departamento que hayan de ser sometidos al Consejo de Gobierno y a sus Comisiones Delegadas, así como la de aquellas disposiciones y actos administrativos que hayan de publicarse en el Boletín Oficial del País Vasco o en cualquier otro Diario Oficial.

p) Examinar el orden del día del Consejo de Gobierno y sus Comisiones Delegadas y actuar como órgano de comunicación con los demás Departamentos y con los Organismos o Entidades que tengan relación con el Departamento, y participar en las Comisiones y Consejos interdepartamentales que tengan por objeto asuntos sobre los que esta Dirección tenga atribuidas funciones.

q) Las que, en relación a la legislación vigente, correspondan al Departamento de Interior por tener el carácter de comunes al venir atribuidas con carácter general a todos los Departamentos en relación con las materias propias de la Hacienda General del País Vasco, organización e informática.

2.– La Dirección de Servicios es el órgano responsable de garantizar el soporte necesario para desarrollar y ejecutar las iniciativas y directrices dictadas por el órgano competente en materia de Reforma y Modernización de la Administración en orden a desarrollar las previsiones del programa de Gobierno relativos a la citada materia en el ámbito de actuación del Departamento.

3.– La Dirección de Servicios es el órgano responsable dentro del Departamento de la ejecución de las medidas de coordinación para desarrollar la intervención del Gobierno Vasco en la elaboración y aplicación de la normativa y de las políticas de la Unión Europea, de conformidad a los acuerdos y normas en vigor.

Artículo 7.– Dirección de Régimen Jurídico.

1.– Bajo la directa dependencia del Consejo, la Dirección de Régimen Jurídico es el órgano de coordinación de las actuaciones de esta índole en el ámbito de gestión encomendado al Departamento de Interior. A tal efecto coordina a través de su superior dirección funcional la actividad de esta naturaleza atribuida a los demás órganos del Departamento.

2.– Corresponde a la Dirección de Régimen Jurídico el ejercicio de las siguientes funciones:

a) Elaborar y proponer los planes de desarrollo legislativo en las materias de competencia del Departamento de Interior y desarrollarlos mediante la elaboración

landuz, guzti hori Sailaren barneko eragindako organoe-kin elkar lanean eta koordinatuta.

b) Herrizaingo Sailak parte hartzen duen jurisdikzio-prozeduren eta beren ebazpenen jarraipena eta kontrola.

c) Herrizaingo sailburuak erabaki beharreko administrazio prozedurak izapidetzea, 6.1.e)3. artikuluan jasotakoak izan ezik, eta sailburuordeek erabaki beharrekotan beharrezko aholkularitza eskaintzea.

d) Saileko organoek eska diezaizkioketen legezko txostenak ematea.

e) Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak eta Jaurlaritzaren Kontseiluak aztertu eta erabaki beharreko gaiei buruzko lege-txostena ematea, hala eskatzen denean.

f) Lege-egitasmoen, eduki arautzaileko dekretu-egitasmoen eta bestelako xedapen orokorren aginduzko legezketasun-txostenak egitea.

g) Sailak izenpetzeko akordio eta itunen txosten juridikoak egitea; halaber, aginduzko legezketasun-txostenak, beste organoren bati beren-beregi izendatu ez baizikio.

h) Indarkeriak kaltetuentzako laguntza, horretarako sortutako bulegoaren bitartez.

3.- Lege Araubideko Zuzendaritzari dagokio, halaber, apirilaren 25eko 250/1995 Dekretuak, Herrizaingo Sailari Ertzaintzako kideak ordezkatzeko eta defendatzeko gaitasuna emateari buruzkoa, izendatzen dizkion eginkizunak betetzea.

III. KAPITULUA HERRIZAINGO SAILBURUORDETZA

8. artikulua.- Herrizaingo Sailburuordetza:

1.- Polizia-jardunarekin zerikusirik ez duen segurtasun alorrean Herrizaingo Sailari izendatzen zaizkion eginkizunak dagozkio Herrizaingo Sailburuordetzari, horien artean larrialdien, trafikoaren, joko-ikuskizunen eta hauteskunde-araubidearen kudeaketa.

2.- Herrizaingo sailburuordearen eginkizuna izango da Sailburuordetzako jardun multzoa programatzea eta bere organoen jarduerak zuzendu, koordinatu, bultzatu eta ikuskatzea, eta bereziki:

de los correspondientes proyectos de disposiciones de carácter general, todo ello en colaboración y coordinación con los diversos órganos departamentales afectados.

b) El seguimiento y control de los procedimientos jurisdiccionales en los que intervenga el Departamento de Interior, así como el de las resoluciones recaídas en ellos.

c) La tramitación de los procedimientos administrativos que hayan de ser resueltos por el titular del Departamento a excepción de los previstos en el artículo 6.1.e).3 y la prestación del asesoramiento que le fuere requerido, en los que deben ser resueltos por los titulares de las Viceconsejerías.

d) Emitir los informes jurídicos que le sean solicitados por los diversos órganos del Departamento.

e) Informar de legalidad, cuando fuese requerido al efecto, los asuntos que vayan a ser objeto de examen por la Comisión Delegada para Asuntos Económicos, y el Consejo de Gobierno.

f) Emitir informes de legalidad con carácter preceptivo, de los anteproyectos de ley, proyectos de decreto con contenido normativo y demás disposiciones de carácter general.

g) Emitir informe jurídico de los acuerdos y convenios a suscribir por el Departamento; así como aquellos informes de legalidad de carácter preceptivo a excepción de los que estén atribuidos expresamente a otro órgano.

h) La atención a las Víctimas del Terrorismo, a través de la Oficina específicamente creada con tal finalidad.

3.- Corresponde igualmente a la Dirección de Régimen Jurídico el ejercicio de las funciones que el Decreto 250/1995, de 25 de abril, sobre habilitación para representación y defensa ante las jurisdicciones penal y civil de los miembros de la Ertzaintza, atribuye al Departamento de Interior.

CAPÍTULO III DE LA VICECONSEJERIA DE INTERIOR

Artículo 8.- Viceconsejería de Interior.

1.- Corresponde a la Viceconsejería de Interior el ejercicio de las funciones atribuidas al Departamento de Interior en el ámbito de la seguridad, no relacionada con el ejercicio de las funciones policiales, comprendiendo la gestión de emergencias, tráfico, juego y espectáculos y régimen electoral.

2.- Compete a la Viceconsejera de Interior la programación de actividades del conjunto de la Viceconsejería y la dirección, coordinación, impulso y supervisión de las actuaciones de sus órganos y en particular:

a) Ertzaintzaren plantillan, Sailburuordetza honen funtzioak betetzeko jarduera erabakigarrikoak diren unitateetan, izandako aldaketen berri ematea.

b) Bere ardurapeko zuzendaritzei dagozkien segurtasun-jarduerak garatzeko izendatutako informatika eta telekomunikabide-gaietako plan eta egitasmoak egiten parte hartzea. Horri begira, bere eginkizuna da sistema horien ezaugarriak erabakitzea Sailburuordetza honen ardurapeko zuzendaritzen zerbitzu-eskariei dagokienean.

c) Euskal Autonomia Erkidegoan Jokoa arautzeko azaroaren 8ko 4/1991 Legearen 32.2 artikuluan eta Jendaurreko Ikuskizunak eta Jolas Jarduerak arautzeko azaroaren 10eko 4/1995 Legearen 38.3 c) artikuluan jasotako zigorrak eta indarrean dauden arauak esanbidez izendatzen dizkietenak jartzea; halaber, bere ardurapeko zuzendaritzetako zuzendariak emandako ebazpenen aurka jar daitezten gora jotzeko errekurtsoak ebaztea.

3.- Honako zuzendaritza hauek daude Herrizaingo Sailburuordetzan:

- Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza.
- Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza.
- Trafiko Zuzendaritza.
- Hauteskunde eta Dokumentazio Zuzendaritza.

9. *artikula*.- Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritza.

1.- Honako eginkizun hauek dagozkio Larrialdiei Aurregiteko Zuzendaritzari: Apirilaren 3ko 1/1996 Legeak, larrialdiak kudeatzekoak ezartzen duenaren ondorioz Herrizaingo Sailari dagozkion eginkizun eta eskumenak betearaztea eta betetzea. Zehatz dagokio:

a) Eusko Jaurlaritzaren esku dauden babes zibileko planak egitea, horien ezarpena, mantenimendua eta berrikuspenera koordinatzea, eta erabilera ere koordinatzea kasuan kasuko planak bere zuzendaritzari buruz ezartzen dituen xedapenekin bat etorritik.

